



Euskararen Plan Estrategikoa 2018-22

2018-03-14ko parte-hartze prozesuko ekarpenak

Dokumentu honetan jaso ditugu Euskararen Plan Estrategikoa 2018-22 lantzeko bigarren saioko ekarpenak.

Saioan gai nagusi batzuk hartu eta horiek sakonago aztertu nahi izan ziren.

Honako gaiak aukeratu ziren: Euskaraldia, ahozketasuna, eskolaz kanpoko mundua, eta erdaldunak eta euskara maila apalekoak. Lan-mundua ere landu nahi zen baina aurrerago bilera monografiko batean lantzeko utzi zen.

Saioarekin lotutako dokumentazioa hau da:

- **Saioaren hasieran aurkeztu zen power pointa.** Bertan dator landu nahi ziren gaien (Euskaraldia, ahozketasuna...) gaineko informazioa: zer egiten den, zer indargune eta ahulgune dugun... Dokumentu honekin batera jarriko da webgunean.
- **Aukeratutako gai bakoitzaren inguruko ekarpenak.** Gai hauenak:
 - Euskaraldia. 2017-11-30ekoekin bateratu da.
 - Ahozketasuna
 - Eskolaz kanpoko mundua
 - Erdaldunak euskara maila apalekoak.

1. EUSKARALDIA

(2017-11-30eko 2018-11-27ko parte-hartze prozesuetan jasotako ekarpenak bateratuta)

Zer ekintza bideratu ahal izango genuke?

- **Zabalkunde orokorra.**

- Informazioa zabaltzen hastea komeni da. Goienak paper garrantzitsua izan dezake.
- Informazio zehatza zabaltzea komeni da, ondo bereiztuta ahobiziek zer egin behar duten eta belarriprest direnek ze konpromiso hartzen duten. Eta erdaldunei ere egitasmoaren berri eman (“Cómo hacer que mi hijo hable euskera aunque yo no lo hable”). Ikastaro modukoren bat antolatu daiteke?
- Ezin da planteatu hizkuntza ohiturak aldatzeko ideia moduan baizik eta jolas modura, erronka modura... (ondo pasatzeko, dibertitzeko)
- Izenematea kosta egingo zaigu, konpromisoa eskatzen du eta horrek atzera botatzen zaitu
- Belarriprestak lortzeko ahalegin berezia egin beharko da
- Irailetik aurrera euskararen inguruko bizipen errealak eta pozgarriak zabaltzea ere ondo legoke.
- Astero talde/elkarte berriren bat sartzeko ahalegina egin eta horren berri zabaldu
- Hasierako 11koa. Ideia egokitzat jo da. Komeniko litzateke taldea askotarikoa izatea generoz, edadez, ideologiaz, auzoak ere aintzat hartuaz....
- Logoa ere zabaltzen has daiteke? Kartelekin ere has daiteke? Eta kantua?
- Informazioa zabaltzeko mobilen bidez WhatsApp ez zeo prestatzea ere ona (bideo laburren bat edo...).
- Logoa: Whatsappeko perfilean logoa agertzeko kanpaina egin beharko genuke. E-mailetako sinaduretan logoa sartu. Enpresa, denda, etab. etako sarreretan logoa ipintzeko erraztasunak eman, jendeak dinamika ondo identifikatu dezan.
- QR kodeak jarri bazterretan “erabili euskara”

- **Jendearengana iristea, saretzea.**

- Ahalik eta jende gehienagana iristea da helburua. Ona litzateke helburu bat jartzea, erreferentziatzeko kopuru bat.
- Batzorde eragile ahalik eta zabal eta dinamikoena beharko litzateke. Baina garrantzitsuena bakoitzak bere inguruan zabaltzea da. Eta tarteka argazkia atera eta zabaldu. Argazkian ahobiziek eta belarriprestak ondo identifikatuta egotea ere komeniko litzateke.
- Jubilatua aktibatu behar dira (San Joxepe).
- Ondo legoke Bedelkar eta merkatariekin ere lanketa berezia egitea. Entitateen ekarpena era garrantzitsua izango da. Bereziki, kirolak, egitasmoa ikusgarri egitearen aldetik, izan dezakeen funtzioa aipatu da.

- Zerbitzu-enpresak oso garrantzitsuak dira (gasolindegia, bankuak, anbulatorio...) ahozko harreman ugari ematen direlako
- Banaka bisitatu beharko dira enpresak, entitateak, elkarteak, dendak...: gutunak bidali, telefono deiak egin eta hitzordua adostu.
- Arrolako batzordeak eratzea urtean zehar lan egiteko, esaterako lan mundukoa (jendea kargatu barik eta bilera edo komunikazio bide informalak erabilia – tabernan geratuta, whatsapp...–).
- Gurasoak eta 16 urtetik gorako ikaslea aktibatu beharko dira ikastetxeetatik. Hamasei urtetik beharekoei ere zabaltzeko aukera izan beharko genuke, 12-16 urte bitartekoei behintzat (izen horrekin ez bada beste izen batekin). Batxikoak ikusten badituzte txaparekin eredu jarraituko dute. Erronka bezala planteatu: hamasei urte betetzen dituzuen izango duzue txapa baina egin ahalegina aurten ere (beste lelo bat presta dezake eskolak, kateorratekin jartzeko...).
- Jaietako zabalkundea.
 - Barraketan zabalkundea. Abenduan komentatu zen Barraketan musika bateratua jar zitekeela eta aprobetxa zitekeela Euskaraldiaren zabalkundea egiteko. Feriariak badute elkarte bat eta ona izango litzateke elkarte horretakoekin egotea. UEMAn komentatu da gai hau eta aztertuko dute nazio-mailan lantzeko aukera.
 - Txosnetan ere zerbait egin beharko litzateke, batez ere, jende mota bat joaten da eta.
- Zabalkundea egun zehatzak aprobetxatuta:
 - Taldeek antolatzen dituzten ekintza berezietan (3x3, musika eskolako kontzertuak...) txertatu behar da Euskaraldia: zer den azaldu eta parte hartzera gonbidatu.
 - Ikastetxeetan ikasturte hasierako guraso bilerak aprobetxatu behar dira kanpaina egiteko eta izen emateko paperen eskaintza egiteko, taldean, konpromezua hartzeko aukera.
 - Bandaren kontzertuak, jaiak, Bedelkarren moda desfileak... aprobetxatu behar dira zabalkundea egiteko.
- Gazteengana iristea.
 - Zaila ikusten da hainbat arrazoigatik (lokalak, ikasketak direla eta herritik kanpora joaten dira...) baina beharrezkoa. Berezi, landu beharko litzateke eskoletan euskara kontuan aktiboak direnekin. Apirilean batxilergokoei gaia azaltzea proposatu da. Batxiko gazteek izena eman dezaten eurentzat erreferente izan daitekeen norbaitek eman beharko die mezua (Rezusta, Gaizka Garitano, Asier Garitano...).
 - Lokalen arteko lehiaketak, olinpadak... edo antzeko zerbait antolatzeko ideia lantzen ari da Jardun. Kontzertuak, bideo-lehiaketak... gazteak erakartzeko
 - Eskolaz kanpoko mundua (klubak, aisialdi taldeak, orkestra...): 16 urtetik gorako taldeak: talde modura parte hartu beharko lukete 11 egunetan eta gero mantentzeko ahalegina egin entrenatzaileak, irakasleak bultzatuta.

Eskolaz kanpoko mundua (klubak, aisialdi taldeak, orkestra...): 12-16 urtetik beharekoei ere azaldu zer den. Entrenatzailea-irakaslea ahobizi edo belarriprest azaldu beharko da umeen aurrean. Belarriprest bada umeak gonbidatu ditzake berari euskaraz egitera, ikasi nahi duelako... Ahobizi bada umeak gonbidatu ditzake berarekin ere ahobizi izatera

2. ESKOLAZ KANPOKO MUNDUA

Etorkinak:

- Ludotekan tarifa soziala ezartzeak ematen du integraziorako bidea, baina gaur egun horrenbeste apuntatu direnez, ludoteka integraziorako bide bilakatu beharrean ghetto bihurtzeko arriskua dago, hizkuntza lantzeko aukera gutxi eskaintzeaz gain.
- Gizarte zerbitzuekin elkarlana: tarifa soziala zabaldu daiteke beste ekintza batzuetara? Futboleak hasi dira tarifa bereziak jartzen (kuota erdia ordaindu edo ez ordaindu) eta etorkin gehiago hasi dira joaten.

Irakasleak / entrenatzaileak...:

- Helduen arteko harremanak euskaraz izan behar dira: oraindik ere hainbatek klaseak euskaraz eman arren beraien artean gaztelaniaz egiten dutelako eta umeek hori ikusten dutelako.
- Entrenatzaileak, irakasleak... eredu izan behar dira. Ezagutza gero eta bermatuago dago eta egongo da baina eredu izatearen garrantziaz jabetu behar dira.
- Taldeko jokalariek gaztelaniaz hitz egiteko ohitura badute, entrenatzailea eramaten dute gaztelaniaz hiz egitera. Taldean landu behar da hizkuntzaren gaia eta erabaki batzuk hartu.

Umeak, gazteak...:

- Euskaraz bizi diren kuadrillak erdaraz bizi direnekin elkartzen direnean gaztelania nagusitzen da eta eskolaz kanpoko munduari oso zaila egiten zaio hor eragitea.

Euskaraldia

- Taldeek antolatzen dituzten ohiko ekintzetan (3x3, musika eskolako kontzertuak...) txertatu behar da Euskaraldia: zer den azaldu eta gonbidatu parte hartzera.
- 16 urtetik gorako taldeak: talde modura parte hartu beharko lukete 11 egunetan eta gero mantentzeko ahalegina egin entrenatzaileak, irakasleak bultzatuta.
- 12-16 urtetik beherakoei ere azaldu zer den. Entrenatzailea-irakaslea ahobizi edo belarriprest azaldu beharko da umeen aurrean. Belarriprest bada umeak gonbidatu ditzake berari euskaraz egitera, ikasi nahi duelako... Ahobizi bada umeak gonbidatu ditzake berarekin ere ahobizi izatera.
- 11 sinbolikoa: oso ideia ona da

Mundu antolatutik haratago: Lokalen arteko lehiaketak, olinpadak... edo antzeko zerbait antolatzeko ideia lantzen ari da Jardun

3 AHOZKOTASUNA

Zer ekintza bideratu ahal izango genuke? Oharrak

- Berbekin egitasmoa. Egitasmoan parte hartzen duten zenbait irakaslek oso positibotzat baloratzen dute: gaiaren garrantziaz sakonago jabetu dira, gaia lantzeko formazioa jaso dute, ahozkotasuna lantzeko ekimenak bideratzen dituzten modu kontziente batean, horren jarraipena egiten dute...
 - Egitasmoaren zabalkundea gurasoei. Iritzi desberdinak daude eta, bereziki, gurasoengana iristeko zailtasuna aipatzen da. Beste gai batzuen inguruan (sexu heziketa, prebentzioa...) ere zaila da jendearengana iristea. Guraso bileretara oso jende gutxi joaten da.
- Euskaldunen gaitasuna indartzea. Jende batek euskaraz gaizki egiten du baina ez du horren kontzientziarik.
 - Bereziki, gurasoentzako ikastaroren batzuk antolatu ahal izango lirateke.

4 ERDALDUNAK ETA EUSKARA MAILA APALEKOAK

Zer ekintza bideratu ahal izango genuke? Oharrak

- Lehentasunezko gaia euskaldunak kontzientziaztea da, **euskaldun pasiboak aktibatzea**: euskaldunekin euskaraz, euskara maila apala dutenekin euskaraz (laguntzeko modu bat dela ulertarazi, bestea batzuetan erdarara pasatu arren norberak euskaraz jarraitu ahal duela...)... (euskara ikasi duten bi lagunek esan dute euskaldun askok gaztelaniaz egiten dietela, euskaraz moldatzen direla jakin arren).
- Kolean euskara entzuten bada nagusiki, jendeak errazago sentituko du premia.
- Mintza-lagun egitasmoa oso lagungarria da.
-
- Etorkin gehienek ez dute euskararen premiarik ikusten. EPAn "Auzoko" aurkeztu zenean ere ez zuten inolako interesik agertu.
- EPAn ere euskararen presentzia zaintzen saiatzen dira.
- Euskara ikasteko Euskaltegiko moduluak malguagoak izan daitezke? Hasierako mailatan astean ordu gutxiago adibidez?